



ONDARROAKO UDALA

IBAIONDO 4KO APARKALEKUAK ERABILERA PRIBATIBOAN ADMINISTRAZIOAREN KONTZESIO BIDEZ EDUKITZEKO BALDINTZA PLEGUEN LABURPENA

1-KONTZESIOKO PLAZA KOPURUA:

- 129 Aparkaleku: Horietatik 3 mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.
- 8 Aparkaleku trastelekuarekin: Horietatik 1 mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.

2-KONTZESIOAREN PREZIOA:

	PREZIOA	ITP/AJD (%4)	FIDANTZA (%3)	GUZTIRA (€)
Aparkalekua trasteleku gabe	14.600	584	438	15.622
Aparkalekua trastelekuarekin	20.500	820	615	21.935

3-KONTZESIOAREN EPEA: 30 urte (kontzesio administratiboa)

4-KONTZESIOAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA: Zozketa

5-BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA LEHENTASUNAK BALDINTZA OROKORRAK

- Ez eduki batere ezintasunik Administrazioarekin kontratatzeke, hau da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71.artikuluaren finkatzen duen debekurik ez eduki.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.

LEHENTASUNAK

1.MAILAKO LEHENTASUNA: Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak:

- Ondarroako Biztanleen Udal erroldan erroldatuta egotea eskariak aurkezteko epea aurretik.
- Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea eta ibilgailu horren zergak Ondarroan ordaintzea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da, berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.

2.MAILAKO LEHENTASUNA: Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak:

- Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da, berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (IAE) altan egotea, Ondarroako udalerrriaren eremuan, gutxienez, edozein epigrafe ekonomiko edo profesionaletan.

3.MAILAKO LEHENTASUNA: Ondorengo baldintzak betetzen dituztenak:

- Gutxienez ibilgailu baten titularra izatea. Enpresaren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren titularra ez bada, ziurtagiri bidez frogatu beharko da, berak soilik erabiltzen duela ibilgailu hori.
- Ondarroako Udalerrian etxebizitza bat izatea, eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (IBI) ordaintzea.

6-AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eskuera-orria sinatuta
- NANaren fotokopia. Beste inoren ordezkariaren kasuan, ordezkariaren NANaren fotokopia eta legezko ordezkariaren egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia (notario-ahalordea).
- Mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekua eskatuz gero: Desgaitasuna dutenentzat ibilgailua aparkatzeko txartelaren fotokopia.
- Enpresa-ibilgailuen kasuan (betiere, ibilgailuen zerga Ondarroan ordaintzen bada): Ibilgailuaren titularra ez bada, enpresako gerente edo administradorearen Ziurtagiria, ziurtatzeko eskatzailea dela ibilgailuaren erabiltzaile bakarra eta ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.

7-ESKARIEN AURKEZPENA:

- Epea: 2019ko uztailaren 15etik 2019ko irailaren 20ra arte (biak barne)
- Tokia: Udaletxeko Erregistro Orokorra (Kantoipe 3)
- Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara

Ondarroan, 2019ko uztailaren 10ean

Ondarroako Alkatea
Zunbeltz Bedia launeta Ibaibarriaga

